

San Juan eguneko goiza

Udako solstizioaren ospokizuna, eta berriro esango dut San Juan Bataiatzailearen festarekin bat eginda iristen zaigula, edukin naturazaledun kanporatze oparoaz bizi dugu, sua, ura eta landareen inguruan.

Atzean utzi dugu San Juan bezpera, solstizio-su iradokorroren berotan elkartzen gaituen gaua; iraganekoak dira ezohizko sorgin presentzia eta azti iharduera orduak, beste emakume haren modura, kinkail saltzailez jantzita eta bere salgaiak iragarritz, San Juan gauez bidera atera eta bertatik pasatako guztiak harri bihurtzen zituena.

Festa aldarrikatzen kanpaia mututu da. Tolosan, 1655eko datatz, zortzi erreal eman zitzaizkion Martin Lizardi abadeari San Juan eta Santa Ageda egunez kanpaia jotzeagatik, eta 1745ean Santa Mari gure eleiz parroko sakristaua halako betebeharez salbuetsia izan zen, eta bere ordeztan lan horretarako bi elizmutil jarri; 1877an Santu Aintzindariaren ohoretzko festa dela eta kanpaiak jotzerokoan hiru pitxer ardo eto lau libera ogi barruratu zituzten.

San Juan goiza dugu, urteko goizik alaiena, eguzkia Uzturre atzetik dantzan ateratzen denekoa, Montezkue auzoan bizi den batek bere aurrekoiei entzun bezala.

Ura garrantzizko sormen gaia dugu, eta San Juan goizez baditu gainerako urte sasoietan ez bezalako purifikazio ahalmenak.

San Agustinek esana digu bere garaiko Libia-n egiten zela San Juan egunez itsasoan bainatzeko erritua.

Nire etnografi ikerketa lanari atxekirik San Juan goizez ibaian bainua hartzea gure herrietako askotan biziutako usuarioa izan dela esan behar. Sarri askotan lepondoa, aurpegia eta oinak bustitzen zituzten, sarna eta bestelako azaleko gaitzak ez harrapatzeko. Eta antzeko zerbait esan dezakegu zenbait iturri buruz, solstizio ospakizun goizean gaixotasun oro sendatzeko ahalmena bait dute.

Oso zabaldutako portaera, eta hala ikusi izan da aintzinetik gure auzoetan, San Juan goizean belazean ihintza gainean oinutsik ibiltzea izan da.

Aurrezaintzeko asmoz osasuna gordetzeko egin izan da, edota penatzen duen gaitzaz ahaztu nahian.

Nik ezagutu nuen kasuan, San Juan goizez sarnak jotakoa belatsora joaten zen, eta behin bertan, erantzi eta ihintzetan aztarrika aritzen zen, hoztu arte. Gogora dakarkit Auzo Txikian jasotakoa. Soroetatik gardua desagertarazteko, San Juan goizez eta oso goiz, larrugorriun joan behar zen bertara, gardua atera eta beste lur sailean aldatu. Horrela eginez gero erabat desagertzen zen.

San Juan goizeko ihintzez bustitako eskuarekin, erritu solstzialaren barruan, landare mundua iristen dugu, berrikuntza ziklikoan.

Udako soslizioarekin zerikusia duten landareak aurkitzen dira herri medikuntzan eta alor mitologikoan.

Ohitura aski ezaguna eta zabaldua da San Juan goizean elorri zuri eto lizar adar bana jartzekoa, elkarren ondoan edo gurutzatuta, etxeko atearen bi aldeetan; nekazal munduan gauza bera egiten zen leihotan, belazeetako langetan eta soroko lanabesetan ere. Elorri zuria ere horrexegatik bedeinkatzen da, lizarrak duen ahalmen horregatik, eta biek tximistari ekiditen diote.

Elorri zuria aipatu dugunez, ildo beretik zabalduko dut erreferentzia. Santa Luzia auzoan esan zidatenez, ekaitzak norbait soroan harrapatzen bazuen elorri zuri puska ahora eramaten saiatu behar zuen, hortzetan hartuta. Tximistaren arriskua aldendu egiten omen da.

San Juan bezperan eta goizez bildutako landareekin sorta egin eta bedeinkatzera eramaten zen. Landare hauek oso erabilpen desberdina izan dute. Gure auzoetako batzutan ezagututako erritua da, familiakoren bat hilda-koan, belar hauek egosi eta ur horrekin gorpua garbitzea.

Sorta hori sendagaiak egiteko formula desberdinak prestatzeko ere erabili izan dira. Eta belar hauekin egindako kutun edo amuletoek Anbotoko Damia uxatzeko balio zuten, Arantzazuko artzainari entzun nionez.



La mañana de San Juan = San Juan Eguneko goiza / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *San Juan Jaiak 92 Tolosa*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1992. – [16] p. : il. ; 21 cm. – P. 15-16. – OC. T. 4, p. 441-444